

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2289

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 19koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko sailburuarena, notarioak izendatzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoan hutsik dauden notariotzak betetzeko lehiaketa arruntean.

Segurtasun Juridiko eta Fede Publikorako Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko apirilaren 4ko Ebazpenaren bidez lehiaketa arrunta deitu da hutsik dauden notariotzak betetzeko asmoz (2022ko apirilaren 11ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da). Bada, horretarako instruitu den espediente aztertuta, Autonomia Estatuaren 10.22 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta 18/2020 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehen-dakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jarraian aipatzen diren notarioak izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoan dauden notariotza horiek hornitzeko:

Bilboko notariotzan: Enrique Arana Ruiz-Cámara jauna (arrazoia: Juan Ramón Manzano Malax-Echevarria jauna erretiratu behar da).

Bermeoko notariotzan: Olga Entrena Fuentes andrea (arrazoia: Juan Antonio Pérez Dapena jaunaren lekualdatzea).

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 19a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.